

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektuaren bezero nagusiak familiak dira, zerbitzuagatik ordaintzeko prest daudenak, eta baliabide ekonomiko mugatuagatik ordaintzeko prest ez daudenak ere.

Gure eskaintzak bezero guztien beharrei modu egokian erantzutea du helburu. Gure proiektua haurren heziketan pentsatua dagoen arren, azken finean, haur horiei inguratzen dieten pertsona guztientzat ere dago pentsatua, gurasoak, haurrak, haurren zaintzaileak eta hezitzaileak, guztiek parte hartzen dutelako zerbitzuaren erabileran.

Orokorrean, haur txikiak dituzten gurasoak izan ohi dira; orientazioa, laguntza edo baliabideak behar dituztenak. Horien artean, lehen aldiz guraso diren familiak, esperientziarik ez duten gurasoak eta informazio falta handiak dituztenak ere.

Beste alde batetik, behar bereziak dituzten familiak ere gure bezero potentzial garrantzitsuak dira: haurren garapenaren, osasunaren edo hezkuntzaren inguruko behar espezifikoak dituztenak, eta egokitutako laguntza bilatzen dutenak. Halaber, familia kanpotarrak ere segmentu esanguratsua dira gure proiektuan, ingurune berrira egokitzeko prozesuak bestelako erronka sozial, kultural edo linguistikoak sortzen dituelako.

Azkenik, gure merkatu-segmentazioaren parte dira hezitzaileak ere: haurrekin lan egiten duten profesionalak, euren lana errazteko, formakuntza hobetzeko edo familiei aholkularitza eskaintzeko euskarri eta tresnak behar dituztenak. Talde honek eragin handia izan dezake bai haurren ongizatean, bai familien konfiantzan.



Argazki hau google-tik atera dugu:

- <https://customdental.cat/higiene-dental-desde-el-nacimiento/>